

Irakurketa plana Lehen eta Bigarren Hezkuntzan

Luis Iza Dorronsoro
lizardorr@cfnavarra.es

1. Irakurketa planaren xedea
2. Irakurketa planen ezaugarriak
3. Elementuak
4. Irakurketa planen egituraketa
 - 4.1. Atalak
 - 4.2. Jardueren laburpena
 - 4.3. Jardueren plangintza
5. Irakurketa plana berrikusteko gakoak

1. Irakurketa planaren xedea

Irakurmena eskolako ikaskuntzan ezinbesteko tresna izan da beti; orain, berriz, informazio eta ezagutza gizartean, garrantzi handiagoa du, bizitza osoan zehar ikastea halabeharrezkoa delako. Ikus-entzunezko kulturaren nagusitasunaz maiz mintzatzen da; ezagutzaren gizarteak, ordea, testu idatziaren funtzioa indartu du, nahiz eta euskarria aldatu, baita etorkizunean aldatuko ere.

Testuinguru horretan, irakurketa planaren xedea izango da, batetik, ikasleak irakurle trebeak izatea, hots, zehatz eta laster irakurtzeko gaitasuna izatea; bestetik, testuak ulertzeko, hausnartzeko eta elkar eragiteko trebetasuna garatzea; eta azkenik, ikasleek irakurtzeko motibazioa izatea, plazerragatik irakurtzeko edo irakurketa ikasbide gisa erabiltzeko. Honek ikastetxeei erronka garrantzitsuak planteatzen dizkie ikasleen oinarrizko irakurketa estrategiak bermatzeko eta ikasleek irakurtzeko motibazioa izan dezaten bultzatzeko.

2. Irakurketa planen ezaugarriak

Nazioarte mailan irakurmena lehenetsutako helburua da Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Nazioarteko ebaluazioetan irakurketa errendimendu ona izan duten zenbait hezkuntza sistemak, hala nola, Kanadakoek, Australiakoek, Erresuma Batukoek edo Irlandakoek, badituzte hainbat ezaugarri komun (elementu ezberdinak badituzte ere) irakurketaren irakaskuntza planifikatzerakoan eta garatzerakoan. Izan ere, guztiek badituzte Lehen Hezkuntzan hasitako, eta geroxeago Bigarren Hezkuntzan garatutako programak. Oro har, irakurketa eta idazketa sartuta dituzte curriculumeko irakasgai guztietan, eta konpartitzen dute, neurri handi batean, PISA Ebaluazioak proposaturiko irakurketa marko teorikoa, irakurketa prozesuekin zerikusia duten jardueri dagokionez, askotariko testu motak hainbat euskarritan erabiltzeari dagokionez, eta hainbat helbururekin irakurtzeari dagokionez.

Egituratuak eta sistematizatuak diren programa horiek curriculum helburu zehatzak eta errendimendu adierazleak dituzte, eta beraz, jasotzen dira ikasi beharrekoen deskripzioa eta ikasleek sortutako produkzioen adibideak, maila jakin batzuetan. Programek erabiltzen dituzte kanpoko ebaluaziotik ateratako datuak, programen eraginkortasuna frogatzeko, eta kanpo ebaluazioarekin bat egiten duen barne-ebaluazio bat aplikatzen dute. Ikasgela barruan

eta ikasgelatik kanpo jarduerak planifikatzen dituzte; ikasgela barruan planteatzen diren jarduerak hiru ardatz ezberdin baina koordinatuetan antolatzen dira: irakurketa eta idazketa curriculumeko irakasgaietan erabiltzea (zein bere hizkuntzan), irakurketa eta idazketa curriculumaren zehar gaitasunak balira bezala tratatzea, eta azkenik, laguntza bereziak ematea irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleei. Ikasgelatik kanpoko jarduerari dagokienez, oso garrantzitsua da familiak eta komunitateak erakusten duten inplikazioa.

Orain arte adierazitakoa ondoko taulan islatuko dugu modu sistematikoan:

EZAUGARRI KOMUNAK IRAKURKETAREN IRAKASKUNTZAN.

ESPARRUA	Irakurketa eta idazketa
	Irakurmena curriculumaren irakasgai guztietan
MARKOA	Irakurtzearen helburuak edo egoerak
	Mota askotako testuak
	Irakurtze prozesuak
SISTEMATIZAZIOA	Curriculum helburu zehatzak
	Adierazleak: ikasi beharrekoen deskripzioa eta ikasleek sortutako produkzioen adibideak, maila jakin batzuetan.
DIMENTSIOAK	Ikasgela barruan: <ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa eta idazketa eskolako hizkuntzetan. - Irakurketa eta idazketa gainerako irakasgaietan. - Zailtasunak dituzten ikasleei laguntzea.
	Ikasgelatik kanpo: <ul style="list-style-type: none"> - Familiaren eta komunitatearen inplikazioa.
EBALUAZIOA	Kanpoko eta barnekoa

3. Elementuak

Irakurketa plana hainbat modutan egin badaiteke ere, plan horrek aintzat hartu beharko lituzke, neurri batean, taulan jasotzen diren elementuak; elementu horietako askok idazketarekin zerikusia dute.

IRAKURKETA PLANAREN ELEMENTUAK

Irakurmena modu sistematikoan garatzea	Eskolako hizkuntzak	Fonema-grafia korrespondentzia Hiztegia Ortografia Esaldiak sortzea eta puntuazioa Paragrafoak sortzea eta kohesioa Estiloaren konbentzioak Hainbat testu mota ulertzea Literatura testuak	E S T R A T E G I A K O M U N A K	E B A L U A Z I O A
	Gainerako irakasgaiak	Irakasgaiaren funtsezko hiztegia Definizioak eta azalpenak sortzea Irakasgaiaren berezko estilo konbentzioak Testu motarik esanguratsuenak irakasgaien Baliabideak erabiltzea: hiztegiak, entziklopediak, liburutegia eta euskarri elektronikoko materialak.		
	Errendimendu eskasa duten ikasleei laguntza ematea	Irakurtzeko zailtasunak goiz identifikatzeko prozedura Esku-hartze goiztiarra: laguntza eta errefortzu sistema		
Irakurketa bultzatzea	Ikasgelan	Irakurtzeko giroa Ikasgelako liburutegia	K O M U N A K	E B A L U A Z I O A
	Ikastetxe barruan	Irakurtzeko giroa Ikasgelako liburutegia		
	Ikastetxetik kanpo	Familiei orientabideak ematea Liburutegiekin eta beste erakunde batzuekin elkarlana egitea		

Irakurmena modu sistematikoan garatzeak eskatzen du, batetik, ziklo bakoitzeko testu egokiak hautatzea eta testu horiek askotariko irakurketa egoerak aintzat hartzea; bestetik, testu mota eta genero askotarikoak erabiltzea; eta azkenik, irakurtzeko prozesuak aktibatzen dituzten irakurketa jarduerak egitea.

Nazioarteko ebaluazioek eskaintzen duten planteamenduari jarraikiz eta Atlante Proiektuaren ondorioz sortutako Hobekuntza Planak adierazitakoa aintzat hartuta, hainbat jarduera-adibide zerrendatuko ditugu, irakurtzeko prozesu horiekin bat egiten dutenak:

IRAKURKETA JARDUEREN ADIBIDEAK

PROZESUA	DEFINIZIOA	ESTRATEGIAK	JARDUERA ADIBIDEAK
Informazioa berreskuratzea	Berariazko informazioa aurkitzea testuan bertan, hitzez hitz edo sinonimoak erabiliz.	Informazioa aurkitzea Informazio hori ulertzea Informazio garrantzitsua hautatzea	Informazio esplizitua hautatzeko ariketak: - Denbora edo tokia identifikatzea kontaketa batean... Informazio baliokidea bilatzeko ariketak
Testua bere osotasunean ulertzea	Testu batetik funtsezkoena ateratzea, testua bere osotasunean hartuta.	Ideien arteko hierarkia ezartzea Ideia nagusia hautatzea	Ideia nagusia edo gaia zehazteko ariketak: - Testuaren zentzua hobekien biltzen duen esaldia hautatzea. - Grafiko edo taula bateko dimentsio nagusiak identifikatzea. - Izenburu bat hautatzea edo sortzea. - Ideia nagusia ondorioztatzea. - Testuaren laburpena egitea. - Literatura testu bateko gaia edo mezua identifikatzea. - Jarraibideen hurrenkera azaltzea. Testu baten asmo orokorra identifikatzeko ariketak: - Testuaren asmo orokorra identifikatzea. - Mapa edo koadro baten, Interneteko orrialde nagusi baten... helburua azaltzea. - Istorio bateko giroaren eta autorearen asmoaren arteko erlazioa. Testu baten erabilera orokorra identifikatzeko ariketak: - Mapa edo koadro baten, Interneteko orrialde nagusi baten... erabilera azaltzea. - Mezu baten hartzaileak identifikatzea. - Emandako testua zein liburu motatan egon daitekeen aurkitzea.
Interpretazio bat garatzea	Testua maila logikoan ulertzea	Informazioa erkatzea eta egiaztatzea. Inferentziak egitea	Informazioa erkatzeko eta egiaztatzeko ariketak: - Bi pertsonaiaren arteko erlazioa deskribatzea. - Sekuentziak ordenatzea. - Pertsonaien, argudioen eta tokien arteko erlazioa azaltzea. - Erlazio edo kategoria batetik ondorioztatzea.

		<p>Proba lagungarriak identifikatzea.</p>	<p>Ondorioak edo inferentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izenordain baten erreferentea zehaztea. - Adierazpen anaforiko baten erlazio erreferentziala zehaztea. - Gertatu behar duena aurreikustea eta aurreikuspen horiek berrikustea edo berrestea. - Pertsonaien ekintzen alternatibak kontuan hartzea. - Pertsonaia jakin baten asmoa ondorioztatzea. - Esanahia ondorioztatzea testuingurutik abiaturik. - Testuko jeneralizazioak identifikatzea. - Testuko informazioaren aplikazio erreal bat interpretatzea. <p>Proba lagungarriak identifikatzeko ariketak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bi gertaeraren arteko kausalitate erlazioa identifikatzea. - Konklusioarekin batera aurkeztutako proben zerrenda egitea. - Egilearen asmoa zein den suposatze erabilitako probak identifikatzea.
<p>Testuaren edukiaren gaineko hausnarketa egitea eta horren balorazioa egitea</p>	<p>Testuan esaten dena ebaluatzea, testuaz kanpotik dugun ezagutzarekin kontrastatuta.</p>	<p>Edukia modu kritikoan lantzea.</p> <p>Irudikatutako errealitatearen aurrean jarrera bat izatea.</p>	<p>Norberaren mundu ezagutzarekin kontrastatzeko ariketak.</p> <p>Beste iturri batzuetatik etorritako ezagutzarekin kontrastatzeko ariketak.</p> <p>Galderan adierazitako ideiekin kontrastatzeko ariketak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Deskribatutako gertaerak ea benetan gerta daitezkeen baloratzea. - Gertaera errealak eta fantastikoak bereiztea. - Egileak gaiaren gainean duen jarrera baloratzea. - Testuko informazioa osoa eta argia den ala ez iritzia ematea. - Zenbait informazio zatik nolako garrantzia duten ebaluatzea. - Egileak ekarritako probak baloratzea. - Zenbait datuk edo probak nolako garrantzia duten baloratzea. - Egilearen argudio bat indartzen duten datu alternatiboak ematea. - Testuaz kanpoko probak edo argudioak ematea. - Edukia erkatzea elkarbizitza, etika, estetika... arauekin.
<p>Testuaren formaren gaineko hausnarketa egitea eta horren gainean balorazioa egitea</p>	<p>Testuaren ezaugarri linguistikoak ebaluatzea, maila morfosintaktikoan, lexikoan, semantikoan eta testuolean.</p>	<p>Zenbait ezaugarri linguistikok duten eragina ebaluatzea</p> <p>Ezkatuan dauden hainbat ezaugarri aurkitzea eta ñabardurak identifikatzea.</p>	<p>Testuaren egiturarekin zerikusia duten alderdiak</p> <p>Testuaren estiloaren eta erregistroaren gaineko ariketak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Errepikatzen diren hitzen gainean hausnarketa egitea. - Zenbait adjektibo ordezkatzeko eta horren emaitza baloratzea. - Bereizgarri testualak une jakin batzuetan erabiltzea, helburu zehatz bat lortzeko.

Bestalde, garrantzitsua da zehaztea irakasleek irakurketa lantzeko erabiliko dituzten estrategia komunak. Horretarako hainbat modu daude: alderdi zehatzak lantzeko berariazko estrategiak; adibidez, ondoko alderdiak lantzeko: hiztegia ikastea edo ideiak eta informazioa interpretatzea eta integratzea; testu motaren araberrako estrategiak; eta irakurtzeko momentuaren araberrako estrategiak. Ikastetxe askok aipaturiko hirugarren ikusmoldea erabiltzen dute, eta horren bidez zehazten dute irakasle guztiek zikloetan irakatsiko dituzten estrategiak (irakasteko sakontasun maila aldatzen da).

Planteamendu horretatik abiatuta, eta Isabel Solé-ren eta beste autore batzuen ekarpenak kontuan hartuta, estrategia komunak landuko dira irakurri aurretik, bitartean eta ondoren. Ondoko taulan ageri da ikusmolde horren eskema:

IRAKURRI AURRETIK	Irakurtzearen helburua modu esplizituan adieraztea: irakurtzearen funtzionaltasuna.
	Irakurtzearen helburu inplizituak eta esplizituak ulertzea § Testuingurua: izenburua, euskarria, testu mota, forma (grafikoak...), data, autore § Edukiaren eta formaren gaineko aurreikuspenak § Testuaren xedearekin zerikusia duten galderak
	Behar diren aurretiko ezagutzak aktibatzea § Zer dakigu? Informazio gehiagorik badugu?
	Behar den hiztegia aldeztu aurretik irakastea
	Nola irakurriko den zehaztea: azpimarratuz...
IRAKURRI BITARTEAN	Era askotako aurreikuspenak egitea eta frogatzea
	Ulermen zalantzak argitzea
	Aldian behin edukia berrikustea edo laburtzea
	Testuaren edukia eta forma ebaluatzea, norberaren ezagutza eta logika erabiliz
IRAKURRI ONDOREN	Ezagutza laburtzea
	Ezagutza jeneralizatzea

4. Irakurketa planen egituraketa

Irakurketa planak berekin dakar epe ertaineko plangintza egitea, ziklo bakoitzeko jarduera garrantzitsuak urtean zehaztea eta jarduera bakoitzaren plangintza egitea. Horretarako hainbat formatu erabil daitezke. Jarraian, zenbait proposamen orientagarri emango ditugu.

4.1. Atalak

Irakurketa planaren plangintza, epe ertainekoa, ondoko ataletan zehaztu dugu:

- § Egoeraren hasierako ebaluazioa:
 - Ø Ikasleen irakurmen maila barne eta kanpo ebaluazioetan.
 - Ø Irakurtzeko ohiturak
 - Ø Ikastetxearen baliabideak erabiltzea
- § Planaren helburuak
- § Jarduerak:
 - Ø Hizkuntza klaseetan irakurtzea
 - Ø Irakurketa lantzeko astean erabiltzen den saioan irakurtzea
 - Ø Gainerako arloetan irakurtzea
 - Ø Ikasleei laguntzea
 - Ø Irakurketa bultzatzea
- § Ikasleen ebaluazioa
- § Antolaketa baliabideak eta inplikazioak
 - Ø Aldiak
 - Ø Tokiak
 - Ø Bideak
 - Ø Baliabideak:
 - Ikasgelako liburutegia
 - Eskolako liburutegia: dokumentazio, informazio eta multimedia baliabideen gune.
 - Ikastetxetik kanpoko baliabideak
 - Irakurketa baliabideak Interneten
 - Ø Koordinazioa
- § Irakurketa plana eta IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak):
 - Ø Euskarri elektronikoetan irakurtzea
 - Ø Interneten bilatzea
 - Ø Posta elektronikoaren bidezko elkartrukea eskolan
 - Ø Eskolako liburutegiaren kudeaketa informatizatua
 - Fondoak informatizazioa
 - Erabiltzaile baseak
- § Irakasleen prestakuntza
- § Planaren ebaluazioa

4.2. Jardueren laburpena.

Irakurketa Planaren urteko zehaztapenak bilduko ditu jarduerak, eta berauek izango dira, ikastetxearen iritziz, ikasturte horretarako garrantzitsuak diren jarduerak. Adibide gisa, ondoko taularen formatua erabil daiteke jarduerak erregistratzeko.

JARDUEREN LABURPENA

200_-0_IKASTURTEA

			HH	LH1	LH2	LH3	IKASTETXEA
IRAKURKETA SISTEMATIKOKI GARATZEA	ESKOLAKO HIZKUNTZAK	GAZTELANIA					
		EUSKARA					
		INGELESA					
	GAINERAKO ARLOAK	Ingurunearen Ezagutza					
		2. ARLOA					
		3. ARLOA					
		...					
LAGUNTZA							
IRAKURKETA BULTZATZEA	IKASGELAN						
	IKASTETXEAN						
	IKASTETXETIK KANPO						

4.3. Jardueren plangintza

Azkenik, behar bezala justifikatuko dira ziklo edo kurtso jakin batean egingo diren jarduerak.

JARDUEREN PLANGINTZA

ZIKLOA: _____

HELBURUA	JARDUERA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	PROZEDURAK	ALDIAK	EBALUAZIOA

6. Irakurketa plana berrikusteko gakoak

Hainbat alderdi kontuan har ditzakegu irakurketa plana berrikusterakoan; edo plan espliziturik ez dagoenean ere, ikastetxe batek irakurketaren inguruan egiten dituen jardueren inguruan hainbat alderdi kontuan har ditzakegu.

IRAKURKETA PLANA BERRIKUSTEA

		Bai	Ez	Partzialki
Sistematizazioa	Ba al dago irakurketa plan espliziturik?			
	Jasotzen al du epe ertaineko plangintzarik?			
	Ba al dago jardueren urteko plangintzarik ziklo bakoitzean?			
	Ba al dago jarduera bakoitzaren plangintzarik?			
Esparrua	Jasotzen al du irakurketarekin eta idazketarekin zerikusia duen jarduerarik?			
	Planteatzen al du irakurmena Curriculumeko arlo guztietan?			
	Jasotzen al ditu IKT-ak (Informazio eta Komunikazio Teknologiak)?			
Kontzeptu markoa	Jasotzen al du askotariko helburuak dituen irakurketa jarduerarik?			
	Jasotzen al ditu mota askotako testu hautatuak ziklo bakoitzean erabiltzeko?			
	Planteatzen al da irakurketa prozesu bakoitzaren araberako irakurketa lanik?			
	Adostu al da estrategia komunik?			
Dimentsioak	Jasotzen al da irakurmenaren tratamendua eskolako hizkuntza guztietan?			
	Jasotzen al da irakurketaren tratamendua gainerako arloetan?			
	Neurririk jasotzen al da irakurtzeko zailtasunak goiz identifikatzeko?			
	Ba al dauka laguntza eta errefortzu sistematik?			
	Jasotzen al du irakurtzera bultzatzeko ikasgela-jarduerarik?			
	Planteatzen al du irakurtzera bultzatzeko ikastetxe-jarduerarik?			
	Ba al dakar familiak inplikatzeko sistematik?			
	Ba al du beste erakunde batzuekiko itunik?			
Ebaluazioa	Jasotzen al du ikasleak ebaluatzen irizpiderik, prozedurarik eta teknikarik?			
	Kontuan hartzen al ditu barne eta kanpo ebaluazioen emaitzak?			
	Jasotzen al du irakurketa planaren ebaluazioa?			
	Jasotzen al da ebaluazioak ekarritako hobekuntzak sartzeko mekanismorik?			
Prestakuntza	Jasotzen al da irakasleen prestakuntzarekin zerikusia duten beharrak detektatzeko mekanismorik?			
	Planteatzen al da irakasleen prestakuntzarako jarduera bateraturik?			

Hausnarketa honi esker, elementu zuzentzaileak sartu ahal izango dira planean; edo plan espliziturik ez badago, irakurketa plan sistematizatu bat prestatzeko lehen pausotzat hartu ahal izango da.